

ERRIBERRIKO ANTZERKI JAIALDIA

2020ko UZTAILAREN 17tik
ABUZTUAREN 2RA

EGONALDIA - LABORATEGIA

Antolatzaileak:

Gobierno
de Navarra  Nafarroako
Gobernua

 FUNDACION
BALUARTE
FUNDAZIOA

 cultura
navarra.es

Laguntzaileak:

 AYUNTAMIENTO
DE OLITE
ERRIBERRIKO
UDALA

 Ayuntamiento de
Tafalla
Tafallako Udala

1. Deialdia

Erriberriko Jaialdiak laneko egonaldia edo ikerketako laborategia proposatzen du konpainia profesional nafar batek aurkeztutako proiektu artistiko baterako.

Egoitza honen antolaketa eta deialdia Kultura Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzea Erakundeak gauzatzen dute, COVID-19ak ezarritako egungo egoerak azkenean Olite 2020ko jaialdia gauzatzea ahalbidetuko duela aurreikusiz, bestela, deialdia eta horrek dakarrena baliogabetuta geratuko litzateke.

2. Betebeharrak

Arte eszenikoetako sormen artistikoaren edozein alderdirekin lotuta dagoen proiektua aurkezten ahalko dute, bereziki antzerkiaren eremuko.

Proiektuan honako hau adieraziko da:

- Proiektua aurkezten duen konpainiaren izena eta harremanetarako datuak eta EJZn inskribatuta dagoela frogatzen duen agiria.
- Egin nahi den lanaren helburua.
- Lantaldearen konposizioa.
- Proiektuaren zuzendaria, koordinatzailea edo arduraduna.
- Lanerako kronograma.
- Aurrekontu zehaztua.
- Gainera, gomendatzen da proiektuak atal hezigarri bat izan dezan edo publikoarekin bitartekaritza egiteko programa bat, eta egiten den lana aurkez dadin (work in progress), konpainiak nahi duen formatuan eta osasun-egoerak COVID-19aren aurrean ezarritako baldintza berrietara egokituta (konferentzia, bideoa, aurkezpena, entsegu irekia, eta abar) 2020ko Erriberriko Antzerki Jaialdiaren programaren barruan, ahal dela azken asteburuan

Egonaldia bukatu ondoren, eta beti ere 2020ko abuztuaren 31a baino lehenago, hautatzen den konpainiak memoria bat egin beharko du, bertan adieraziz zein den sormenaren garapena eta egoera eta izan dezakeen etorkizuna; gainera, esperientziaren gaineko balorazioa

eginen da. Halaber, aipatutako dataren aurretik, egonaldiaren kargura egindako gastuei buruzko fakturak aurkeztu beharko ditu.

3. Egonaldiaren baldintzak

Egonaldiaren iraupena:

Uztailaren 17tik abuztuaren 2ra arte, biak barne.

Egonaldiaren tokia:

Erriberri. Jaialdiak lanerako toki bat eskainiko du, herriko udalak lagatako lokal batean, zehazten den ordutegian.

Egonaldiaren zenbatekoa:

Egonaldiak gehienez ere 6.000 euroko zuzkidura izanen du; horietatik, 4.000 euro emanen ditu Vianako Printzea Erakunde-Kultura Zuzendaritza Nagusiak eta 2.000 euro Erriberriko Udalak.

Jarduera bukatzen denean emanen zaizkio bi kopuru horiek konpainiari; horretarako, 2020ko abuztuaren 31a baino lehen aurkeztu beharko dituzte egindako gastuak zehaztu eta justifikatzen dituzten fakturak eta txostena.

Onartzen diren gastuak gastu zuzenei dagozkienak dira (zerbitzuen kontratazioa, alokairuak, profesionalak, gastu sozialak, konpainiaren egoitzatik Erriberriko bidaiak, ostatua eta mantenua). Salbuespenetan izan ezik (prezioagatiko justifikazioa) ez dira ostatuari edo mantenuari buruzko gastuen fakturak onartuko Erriberritik kanpoko establezimenduetan egin badira; eta bidaien kasuan, soilik onartuko dira konpainiako kideak beren bizilekuetatik Erriberri joateko eta bizilekuetara bueltatzeko egiten direnak, egonaldiak irauten duen egunetan.

Egindako jarduera justifikatzeko aurkezten diren fakturek izan behar dute inolako zalantzarik gabe jarduera horri buruzkoak eta proiektua hautatua izan zen dataren ondokoak.

4. Proiektua aurkezteko epea eta modua

Proiektuak aurkezteko epea 2020ko maiatzaren 20an hasi eta ekainaren 10ean amaituko da, 14:00etan.

Proiektuak eta eskatutako gainerako dokumentuak difusion@navarra.es helbide elektronikoaren bidez aurkeztuko dira, gaian adieraziz: EGONALDIAREN DEIALDIA 2020.

Proiektua PDF artxibategi erantsian aurkeztu beharko da eta egileak edo konpainiaren arduradunak sinatu beharko du, adieraziz izen-deiturak, telefonoa eta helbide elektronikoa. Halaber, proiektua aurkezten duen konpainiaren edo profesionalaren EJZren kopia bidaliko da, baita 2. puntuan -Betebeharrak- eskatzen diren gainerako dokumentuak ere.

5. Hautapena

Batzorde batek hautatuko ditu parte hartuko duten proiektuak. Batzorde horretako burua Jaialdiko zuzendari artistikoa izanen da eta honako hauek kide

- Kultur Ekintza Zerbitzuko zuzendaria, Lorenzo García Echegoyen.
- Arte Sorkuntzaren eta Hedapenaren Ataleko burua, Marisol Martínez Caspe.
- Foru Komunitateko arte eszenikoen arloan entzute handikoak diren 2 aditu.
- Idazkaria: Kultur Ekintza Zerbitzuko goi mailako teknikari bat.

Batzordeak proiektuen egokitasuna baloratuko du irizpide hauen arabera:

- Proiektuaren kalitatea eta proiektua deialdiaren xedearekin, helburuarekin eta eremuarekin bat etortzea.
- Talde artistikoaren eta talde teknikoaren egokitzapena.
- Proiektuaren originaltasuna eta bideragarritasuna etorkizunean eszenaratzeko.
- Aukera datorren denboraldian proiektua ekoizteko eta proiektatzeko Foru Komunitateko beste gune batzuetan.

Erabakia interesdun guztiei jakinaraziko zaie 2020ko ekainaren 30a baino lehenago, proiektua aurkeztu zutenean jarri zuten helbide elektronikoaren bidez.

Hautatutako konpainia lanean hasten ahalko da jakinarazpena jaso eta biharamunean; dena den, beharrezkoa da konpainia Erriberrin egotea Jaialdiak irauten duen bitartean, hau da uztailaren 17tik abuztuaren 2ra arte, zehazten den lan ordutegian

Harremanetarako:

Amalia Jiménez Atienza
Goi mailako teknikaria
Arte Programen eta Zabalkundearen Atala
Tel. 848 42 46 86
Email: programasydifusion@navarra.es

Iruñean, 2020ko maiatzaren 20an.

